



EBAZPENA, 2017ko martxoaren 28koa, Unibertsitate zuzendariarena, 2016-2017ko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka-deialdiaren eskaerak ebazteko 5. proposamena egiten duena.

2016ko uztailaren 8ko aginduaren bidez (2016ko uztailaren 13ko EHAA), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2016-2017ko ikasturtean unibertsitate- eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

2016ko uztailaren 8ko aginduak 35. artikuluan xedatutakoaren arabera eratu diren hautespen-epaimahaiak banaka aztertu dituzte ebazpen honen I. eranskinean adierazitako eskaerak eta aipatutako eskaerei buruzko ebazpen-proposamena egin da.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainontzeko arauak bete direnez,

#### EBAZTEN DUT:

Lehen artikulua.- Deialdi hori ebazteko 5. Ebazpen-proposamenaren berri ematea 2016-2017ko ikasturtean unibertsitate- eta beste goi ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei. Eranskinean eskaerak, beka emateko edo ez emateko proposamenarekin batera, zerrendatzen dira. Proposamenak zehatz kontsultatzeko, eskatzaileek beren espedienteak Eusko Jaurlaritzaren beka-aplikazioan kontsultatu beharko dituzte.

Bigarren artikulua.- 15 egun naturaleko epe bat irekitzea, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, eranskinean aipatzen diren eskatzaileek beka emateko proposamenaren kontra alegazioak aurkezteko edo proposamena onartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 28a.

Unibertsitate Zuzendaria

MIREN ARTARAZ MIÑÓN